


## 4. Euskeraren ustezko kidesunak Italian eta Korsikan liburuaren aurkezpena

### Juan Martin Elexpuru



**Juan Martin** *Filosofia eta Letretan lizentziatua eta Euskal Filologian doktorea. Idazlea eta itzultzailea. Nagusi zein haur literaturako hainbat liburu idatzi du, eta itzuli ere, Moliereren Tartufo eta Zekena (2008) eta Makiaveloren Printzea (2008), esaterako.*

*Euskal hizkuntzaren arloan Bergara aldeko euskera (1988) eta Bergara aldeko berbak eta langintza zaharrak (1997-2003) proiektuko lau liburukiak kudeatzeaz gain, Bergara aldeko hiztegia (2004), Iruña-Veleiako euskarazko grafitoak (2009) ¿Qué está pasando con Iruña-Veleia?, Euskararen aztarnak Sardinian? (2017) eta Euskararen ustezko kidesunak Italian eta Korsikan (2021).*

**Euskeraren ustezko kidesunak Italian eta Korsikan liburuaren aurkezpena** *Euskararen aztarnak Sardinian* argitaratu zuen liburu honen egileak 2017an, eta haren jarraipena eta osagarria da neurri batean esku arteko hau. Esan beharra dago Italiako Iparraldeak Sardiniak baino lehenago piztu zuela zenbait ikerle euskaldunen arreta. Federiko Krutwig euskaltzainak Aosta eta Piemonte aldeko toponimian aurkitu zituen izenkideak nabarmendu zituen *Garaldea* liburuan (1978), eta geroxeago hari berari tiratu zion Bernardo Estornés Lasak Auñamendi Entziklopedian.

Baina harrezkero ez euskaldunek ez atzerritarrek, inork ez dio gaiari orain arte heldu. Obra honetan Elexpuru, Sardiniako ikerketak eskaini dion esperientziaz baliatuta, Korsikan, Frantziako eta Suitzako Alpeetan eta Italiako penintsula osoan jarri ditu begiak. Harrigarriak dira toponimian aurkitu daitezkeen kidesunak, hirurehun bat leku-izen berdin eta mila eta bostehun antzeko, Italia ipar-mendebaldean ematen delarik dentsitate handiena, Piemonte, Aosta, Lonbardia eta Ligurian, antzinatean liguriarrenak izandako lurraldeetan. Baina kidesunak ez dira toponimiara mugatzen. Mitologian, adibidez, gure Basajauna eta Laminak aurkituko ditugu Alpeetan. Eta hau guztia argazkiz eta mapaz ondo hornituta.